

Atzo, otsailaren 22an Hezkuntza Departamentua eta ordezkari sindikalon arteko Mahai Sektoriala bildu zen. Hemen dituzue bertan emandako hainbat informazio:

- **Erretiroaz.** Irakasle funtzionarizatuak, Estatuko 2018ko Aurrekontuen legearen luzapenaren ondorioz, 60 urterekin erretiratu ahal izango dira aurten ere. Estatuko Aurrekontuen legean puntu hori derogatu ez zelako horrela izanen da, hortaz, Hezkuntza Departamentuak ez du aurreikuspenik honen inguruan eta hurrengo urteetako estatuko aurrekontuen menpe egonen da.

*Ildo honetan, STEILASek mahai ganean jarri dugu bai irakasle talde honentzat, baita 60 baino gehiago duten interino zein 2011 ondoren funtzionario bihurtu direnentzat, Nafarroako Irakaskuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko Itunak jasotzen duen neurria, 60 urterekin irakasle guztiak erretiratu ahal izatea. Hori lortzen ez den bitartean, Itun berean dagoen kontratu erreleboaren aukera garatzen hastea exijitu dugu.*

- Zerbitzu eginkizunetan **Programa eta Proiektuak** garatzeko deialdi berria zabalduko da aurki. Proiektuak aurkezteko denbora eskasa dela eta, aurretiaz bidaltzen dizuegu parte hartzeko aukera izan dezazuen.

[Deialdi zirriborroa](#)

[Proiektuak](#)

[Proiektuen azalpena eta eskakizunak](#)

*STEILAS sindikatutik kritika egin nahi diogu Zerbitzu Eginkizunak arautzen dituen sistema honi. Ikastetxeko plantilla finkatu beharrean, eta ikastetxeak berak bere baliabideekin proiektuak garatu beharrean, figura hauen bitartez gehiegizko mugimenduak ematen dira ikastetxeen egonkortasuna eta garapen egokia kaltetzen dutenak. Bitartean, hainbat funtzionario berri behin-behineko bezala daude.*

*Bai hauetan eta baita antolakuntzagatiko zerbitzu eginkizunetan gardentasun falta nabaria da.*

#### **Erantzunik gabe utzi zituzten kontuak:**

-PAI aldi baterako hizkuntzen akreditazioa (datuak eta hau bukatzean zer gertatuko den).

-Altsasuko mendi kiroletako zikloen etorkizuna (bertan euskaraz eskaintzen jarraitzea eskatu genuen).

-LOMLOE abian denez, Departamentuak hartutako konpromisoa betez, Ikastetxeen Erregelamendu Orokorra eta Jardunaldi eta Ordu-tegi dekretu zaharkituak berritzeko mahaia osatzea.

-Hurrengo ikasturterako ratioak eta ordutegia zein izanen diren argitzea.

**Azkenik, Mahai Sektorialak hartu duen izaera informatiboa salatu dugu bertan, langileen eta Departamentuaren arteko negoziazio esparrua da Mahai Sektoriala eta hala izaten jarraitu behar du.**